

Jean-Baptiste Coyos euskaltzain oso

HIZKUNTZALARI zuberotarra (Maule, 1952) proposatu zuten Jean Haritschelhar, Jean-Louis Davant, Txomin Peillen eta Andres Urrutiak, euskaltzain oso izateko. Coyos-ek Jean-Louis Davanten tokia hartuko du, azken hori euskaltzain emeritu izendatu baitute.

HIESaren lexikoa sarean

UZEIK prestatu zuen HIESari buruzko hiztegia HIESaren Nazioarteko Egunerako, abenduaren 1erako. Hiztegiak termino berrienak bildu ditu eta www.uzei.com helbidean dago.

Liburuxka bana etorkinen harreraz eta euskaldunon jarreraz

EMUN kooperatibak bi liburuxka argitaratu ditu. Kataluniako Plataforma per la Llenguak eginak zituen bi lan hartu ditu oinarri. Lehenengo liburuxkak TELP tailerretako mamia biltzen du eta euskaraz egiterakoan egunero sortzen zaizkigun egoeretan baliagarri izan daitezkeen arrastoak ematen ditu. Bigarren gidaliburuak atzerrikak datozenei, hizkuntza kontuei dagokienez, nolako harreara egin laguntzea du helburu. Bi liburuxkak www.emun.com-en daude.

BAHEA

Ana Telletxeak *Noticias de Gipuzkoan* esanak:

“Hizkuntzaren bestelako alderdiak –antzinatasuna, lehenagoko hedadurak, ahaidetasunak, bizi-baldintzak...– edozein kasutan, balioak dira, baina gure hizkuntzaren esku-bideak errespetatu daitezen eskatzeko ez dugu inolako pedigririk aurkeztu beharrik. Hizkuntza esku-bideak hizkuntza guztientzat berdina beharko lirateke –nolanahikoa direla–, guk ez dugu besteek baino justifikazio handiagoa eta pisuzkoagoa eman beharrik euskarak errespetua, zaintza eta miresmena jaso ditzan”.

Jose Luis Alvarez Txillardegik

Garan esanak: “Badakigu, edo jakin egin behar genuke, hiru faktorek markatzen dituztela euskararen mugak: 1-Ezaguera maila minimo-tik behera, ezinezkoa dela euskarak beharrezko maila lortzea. Alegia, erdaldun elebazarren maila jaitsi behar dela, derrigorrez. Eta horrek prezio politikoa duela. 2-Ez dela egia, faltsua dela, euskaldunon leialtasuna txikia dela. (...) 3-Euskaldunon kontzentrazio geografikoa (hau da, gizarteko anisotropia) guztiz beharrezkoa dela erabileraren kota jasotzeko. Nahiz honek, berriz ere, prezio politikoa izan. Euskararen bakartasuna, edo nagusitasuna, lortzeak ondorio politikoak izango ditu. Eta badakigu. Belaxkakeriek ez daramate inora kasu hauetan. Egia ikusi behar da, eta garbiki esan herriari: politikari maltzurak eta ezjakinak salatuz”.

Iñaki Beobide Jarrai antzerki taldeko zuzendari ohiak *Berrian* esanak:

“Profesionalak diren talde horietako batzuek erdaraz prestatzen dituzte antzezlan guztiak. Hori da dirua irabazi behar dutelako, hortik bizi nahi dutelako; horretara behartuak daude, horretan sartuak daudelako”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan) e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kutxa publikoen harrapaketa

“Merkatuek” –banka, pentsio funts eta finantza erakunde handiak– inoiz ez bezala kontrolatzen dute politika, Espainiako eta Frantziako Estatuena, baita Europa osoarena eta munduko zati handienarena ere. Gobernuak indarrak gabe eta mende harturik ikusten dute nola ari diren egiten historian izandako kutxa publikoen harrapaketa multimilioidunena. “Merkatu” boteretsuen menpe dauden gobernu horiek egunero gero eta gehiago errenditzen dira hauen esanetara. Eta finantza krisi hau sortu zutenak –liberalenak, Estatuaren interbentzioaren kontrakoak– dira orain, euren galerak herritarren ongizatearen kontura sozializatu nahi dutenak.

Jada “erreskataturiko” herrialdeak edota mehatxupean daudenak, erreskate hori urte askoan ordaintzera beharturik aurkitzen dira, zergak igoz eta prestazio eta eskubide sozialak murriztuz edo kenduz. Hori da “erreskate” deitu izan zaien horien atzean dagoena: Grezia, Islandia, Irlanda... eta etorriko direnak. Argiago: “erreskateak”, Alicia Stürtze historialariak dioen moduan, banka pribatuaren onurarako kutxa publikoen harrapaketa multimilioiduna baino ez dira, eta harrapaketa hori da, hein handi batean, langile gehienoi endosatu nahi diguten defizitaren eragile, gutxi batzuk itsuski aberasten diren bitartean.

Gobernuak izen-abizenekin seinalatu beharko lituzkete harrapaketa horren erantzuleak. Esan dezatela zein diren merkatu horiek eta atzean ezkututzen dituzten espekulatuzaileak. Eta haiengana jo dezatela. Ongi etorria izango litzateke EAJK proposatutako espekulazioaren kontrako paktua, ekonomia nazioarteko finantza merkatuen espekulazio mugimenduetatik babesteko. Dena den, beldur gara hauteskundeetako marketin itxura hutsa ez ote den izango.

Juan Mari Arregi